# GIZARTE ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA/

# ACTA DEL PLENO DEL CONSEJO VASCO DE BIENESTAR SOCIAL

**(Reunión del día 29 de noviembre de 2006)**
**(2006ko azaroaren 29ko bilera)**

**Dei-egilea**:

**Lehendakaria**: **Javier Madrazo Lavín jauna**.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua.

**Bertaratuak**:

**Fernando Consuegra Revuelta jauna**.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako sailburuordea.

**Carmen Vicioso Etxebarria andrea.-** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendaria.

**Isabel Paredes andrea.-** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren teknikaria.

**Manuel Vigo jauna.-** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Gizarteratze eta Familia sailburuordea.

**Mikel Santiago jauna.-** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Gizarteratze zuzendaria.

**Sonia Samaniego Soto andrea.** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Etxebizitza eta Arkitektura zuzendaria.

**Lore Bilbao Artetxe andrea**.- Kultura Sailaren Zerbitzu zuzendaria.

**Jose Luis Vidal jauna**.- Osasun Saila.

**Arantza Madariaga andrea**.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen idazkaria.

**Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna**.- Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Haur, Emakume eta Pertsona Ezinduen zuzendari nagusia.

**José Luis Madrazo Juanes jauna**.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen eta Babesgabeen Laguntzako zuzendari

**Convoca**:

**Presidente**: **D. Javier Madrazo Lavín**.- Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Asistentes**:

**D. Fernando Consuegra Revuelta.-** Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Dña. Carmen Vicioso Etxebarria.-** Directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Dña. Isabel Paredes.-** Técnico de la Dirección de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**D. Manuel Vigo.-** Viceconsejero de Inserción Social y Familia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad social.

**D. Mikel Santiago.-** Director de Inserción social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

**Dña Sonia Samaniego Soto**.- Directora de Vivenda y Arquitectura del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Dña. Lore Bilbao Artetxe**.- Directora de Servicios del Departamento de Cultura.

**D. Jose Luis Vidal**.- Departamento de Sanidad.

**Dña. Arantza Madariaga**.- Secretaria de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

**D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano**.- Director General de Infancia, Mujer y Personas con Discapacidad del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.

**D. José Luis Madrazo Juanes**.- Director General de Atención a la Dependencia y la Desprotección del Departamento de Política Social de la Diputación Foral

nagusia.

**Juan Francisco Sandín Ramos jauna.** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko zuzendari nagusia.

**Gualber Atxurra Pérez jauna**.- EUDEL. Muskizko Udala.

**Mª Carmen Basarrate andrea**.- EUDEL. Sestaoko Udala.

**Iñaki Zarraoa Zabala jauna**.- EUDEL. Getxoko Udala

**José Manuel Odriozola Azurmendi jauna**.- Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioa.

**Itziar Gamarra andrea.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea.

**Elena Ávalos Mtnez. de Luco andrea.-** Euskal Autonomia Erkidegoko Urritu Fisikoen Konfederazio Koordinatzailea.

**Pedro Fernández García jauna.-** Urritasun psikikoa dutenen aldeko Elkarteetako Euskal Federazioa (FEVAS).

**Conchi Soto Aller andrea.-** Gaixo Psikikoen eta haien Senideen Elkarteetako Euskadiko Federazioa (Fedeafes).

**Blanca Estrella Ruiz Ungo andrea.-** Clara Campoamor elkartea.

**Consuelo Ordejón.-** Gizarterako elkartea.

**Lucía Linares andrea.-** Aireratu Euskadiko emakume alargun eta erretiratuen Federazioa.

**Alaitz Tresserras Angulo andrea**.- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua.

**Rigoberto Jara jauna.-** “Harresiak apurtuz” Etorkinen Laguntzarako GKEen Euskadiko Koordinakundea.

**Natalia Díez Caballero andrea.-** Euskadiko familia ugarien elkarteetako Federazioa.

**Javier Domínguez Entenza jauna**.- ONCE Euskadi.

**María Luisa Mendizabal andrea.-** Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa.

**Jesus Otaño Maiza jauna.-** Euskadiko gizarte-hezitzaileen elkargoa.

de Gipuzkoa.

**D. Juan Francisco Sandín Ramos**.- Director General de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava.

**D. Gualber Atxurra Pérez**.- EUDEL. Ayuntamiento de Muskiz.

**Dña. Mª Carmen Basarrate**.- EUDEL. Ayuntamiento de Sestao.

**D. Iñaki Zarraoa Zabala**.- EUDEL. Ayuntamiento de Getxo.

**D. José Manuel Odriozola Azurmendi**.- Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco.

**Dña. Itziar Gamarra-** Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de la CAPV.

**Dña. Elena Ávalos Mtnez. de Luco.-** Confederación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de la CAPV.

**D. Pedro Fernández García**.- Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con minusvalía psíquica (FEVAS).

**Dña. Conchi Soto Aller.-** Federación de Euskadi de Asociaciones de Familiares y Enfermos Psíquicos (Fedeafes).

**Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo.-** Asociación Clara Campoamor.

**Dña. Consuelo Ordejón.-** Asociación Gizarterako.

**Dña. Lucía Linares.-** Federación de mujeres viudas y jubiladas de Euskadi, Aireratu.

**Dña. Alaitz Tresserras Angulo**.- Consejo de la Juventud de Euskadi.

**D. Rigoberto Jara.-** Coordinadora de O.N.G.´s de Euskadi de Apoyo a Inmigrantes “Harresiak Apurtuz”.

**Dña. Natalia Díez Caballero.-** Federación de asociaciones de familias numerosas de Euskadi.

**D. Javier Domínguez Entenza**.- ONCE País Vasco.

**Dña. María Luisa Mendizabal.-** Confederación de Cooperativas de Euskadi.

**D. Jesus Otaño Maiza.-** Colegio de educadores y educadoras sociales del País Vasco.

**Maite Etulain Garbayo andrea.-** EAEko Gizarte Laneko Diplomatuen eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialak.

**Dña. Maite Etulain Garbayo.-** Colegios Oficiales de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de la CAPV.

**Ana Ureta Basañez andrea.-** Aldarte elkartea.

**Dña. Ana Ureta Basañez.-** Asociación Aldarte.

**Xuria Arza Velez andrea**.- UGT Euskadi.

**Dña. Xuria Arza Velez**.- U.G.T. Euskadi.

**Felisa Piedra Gao andrea.-** CCOO. Euskadi.

**Dña. Felisa Piedra Gao.-** CC.OO. Euskadi.

**Itziar Gabikagogeaskoa andrea.-** ELA sindikatua.

**Dña. Itziar Gabikagogeaskoa.-** Sindicato ELA.

**Gonbidatuak:**

**Otras personas invitadas** :

**Bartolomé Jiménez**.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua.

**D. Bartolomé Jiménez**.- Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

**Pascual Borja Borja jauna**.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluaren Idazkaritza Teknikoa.

**D. Pascual Borja Borja**.- Secretaría Técnica del Consejo para la promoción integral y participación social del Pueblo Gitano en el País Vasco.

**Juan José Seoane jauna**.- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.

**D. Juan José Seoane**.- Consejo Vasco del Voluntariado.

**Dorleta Goiburu andrea.- EUDEL.**

**Dña. Dorleta Goiburu.-** EUDEL.

**Jaime García Moreno jauna**.- Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Aholkularitza Teknikoa .

**D. Jaime García Moreno**.- Asesoría Técnica del Consejo Vasco de Bienestar Social.

**Elena Ayarza Elorriaga andrea.-** Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Aholkularitza Teknikoa.

**Dña. Elena Ayarza Elorriaga**.- Asesoría Técnica del Consejo Vasco deBbienestar Social.

**Ezin etorria adierazi dute**:

**Excusan su asistencia**:

**José Roberto Marro Ibarra jauna**.- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Inmigrazio zuzendaria

**D. José Roberto Marro Ibarra**.- Director de Inmigración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Belén Bilbao Borde andrea.-** Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Droga Gaietako zuzendaria.

**Dña. Belén Bilbao Borde**.- Directora de Drogodependencias del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

**Jon Landa Gorostiza jauna**.- Justizia Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Giza Eskubideen zuzendaria.

**D. Jon Landa Gorostiza**.- Director de Derechos Humanos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

**Iñaki Beristain jauna**.- Ogasun eta Herri Administrazioa Sailaren Ekonomia eta Plangintza zuzendaria.

**D. Iñaki Beristain**.- Director de Economía y Planificación del Departamento de Hacienda y Administraciones Públicas.

**Alfredo Ispizua Zuazua jauna.** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Gizarte Ekonomiako zuzendaria.

**D. Alfredo Ispizua Zuazua**.- Director de Economía Social del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

**Pedro Mª Otxoa Bernales**. Hezkuntza sailburuordea.

**Bertaratu gabeak**:

**Maribi Roteta Mujika andrea.-** EUDEL. Pasaiako Udala.

**Arantza Quiroga jauna**.- Eusko Legebiltzarreko Lan eta Gizartekintzako Batzordea.

Bilera 2006ko azaroaren 29an egin da, goizeko 10:20an hasita. Hona hemen gai-zerrenda:

1. Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkura berriaren kideen ongietorria eta aurkezpena.
2. Aurreko bilkuraren akta onartzea.
3. *Etxean tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituen Dekretuaren* zirriborroaren aurkezpena eta aginduzko txostena.
4. *Haurren eta Nerabeen Behatokia arautzen duen Dekretuaren zirriborroaren* aurkezpena eta aginduzko txostena.
5. *Haur eta nerabeentzako Defentsa Bulegoaren antolaketa- eta funtzionamendu-Arautegia ezartzen duen Dekretuaren* zirriborroaren aurkezpena eta aginduzko txostena.
6. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuei buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko irekitako partaidetzazko prozesua: lege berri baterako oinarriak.
7. Informazioa:
   - *Gizarte-ekimenarentzako laguntzen egoera.*
   - *Haur eta Nerabeen arretarako Batzorde Iraunkor Sektoriala eta Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala arautzen dituen Dekretua lantzeko lehen urratsak.*
   - *Dolores Ibarruri sariak.*
   - *EAEko gizarte-zerbitzuen VI. egoera-Txostena egiteko proposamena.*
8. Galde-eskeak.

*1. puntua.- Ongietorria eta aurkezpena.*

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte

**D. Pedro Mª Otxoa Bernales**.- Viceconsejero de Educación.

**Ausentes**:

**Dña. Maribi Roteta Mujika**.- EUDEL. Ayuntamiento de Pasaia.

**Dña. Arantza Quiroga**.- Comisión de trabajo y acción social del Parlamento Vasco.

La sesión dio comienzo a las 10:20 de la mañana del 29 de noviembre de 2006, con el siguiente orden del día:

1. Bienvenida y presentación de las y los componentes del nuevo Pleno del Consejo Vasco de Bienestar Social.
2. Aprobación del acta de la sesión anterior.
3. Presentación e informe preceptivo del borrador del *Decreto por el que se regulan los recursos de acogida a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico*.
4. Presentación e informe preceptivo del borrador del *Decreto regulador del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia.*
5. Presentación e informe preceptivo del borrador del *Decreto por el que se establece el Reglamento de organización y funcionamiento de la Defensoría para la infancia y la adolescencia.*
6. Proceso participativo abierto para la reflexión estratégica sobre los servicios sociales en el País Vasco: bases para una nueva ley.
7. Información:
   - *Situación de las ayudas a la iniciativa social.*
   - *Inicio de elaboración del Decreto regulador de la Comisión Permanente Sectorial para la atención a la Infancia y Adolescencia y de la Comisión Permanente Sectorial de Personas Mayores.*
   - *Premios Dolores Ibarruri.*
   - *Propuesta para el VI. Informe de situación de los servicios sociales de la CAPV.*
8. Ruegos y preguntas.

*Punto 1.- Bienvenida y presentación.*

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de

Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak berriki izendatutako bertaratuei (batzuek lehen aldiz parte hartu dute Kontseiluaren osoko bilkura batean) ongietorria eman die, eta aztertu beharreko gaien berri eman die. Osoko bilkurara bertaratu direnei dagokienez zera adierazi du: lehen bilera denez, egokitzat jo da 2 pertsona bertaratzea Kontseilukide baten ordezkari gisa; hemendik aurrera, ordea, hobe litzateke Kontseilukide bakoitzeko pertsona bakarra azaltzea.

Asuntos Sociales del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales da la bienvenida a las personas asistentes recientemente nombradas, que en algunos casos son personas que acuden por primera vez a un pleno del Consejo, y expone los asuntos que se tratarán en el orden del día. Respecto a la asistencia al Pleno señala que tratándose de la primera reunión se ha considerado adecuada la asistencia de 2 personas por representación de una vocalía, pero que en adelante sería conveniente la asistencia de una persona por cada agente miembro del Consejo.

*2. puntua.- Aurreko bilkuraren akta onartzea*

Gualber Atxurra Pérez jaunak, Eudelen ordezkaritzan, zerbait adierazi nahi izan du Begoña Gil andrearen esku-hartze bati buruz. Adierazpen horiek idazki batean bildu dira, eta aktari hitzez hitz gaineratuko zaizkio.

Clara Campoamor Elkarteko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak honako hau adierazi du: aktan jaso denez, Ruiz andreak bigarren puntua aztertzen ari zirela alde egin zuen azken osoko bilkuratik. Berak, ordea, geroago alde egin zuela dio, eta aktan horrela jasota geratzea nahi luke.

Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioko kide José Manuel Odriozola Azurmendi jaunak honako hau argitu nahi izan du: azken osoko bilkuran Adinekoen Euskal Kontseilua sortzeko eskaera egin zuen, baina, hori ez ezik, Adinekoen batzorde sektoriala sortzeko aukera ere proposatzen zuen, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren barruan.

Argibide horiek entzun ondoren, Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak akta onartzeko eskaera egin du.

*Punto 2.- Aprobación del acta de la sesión anterior*

D. Gualber Atxurra Pérez, en representación de Eudel, apunta una precisión en relación a una intervención de Begoña Gil. Estas son aportadas por escrito y se incorporarán literalmente al acta.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, de la Asociación Clara Campoamor señala que le gustaría que no se reflejara en el acta que ella abandonó el último pleno en el segundo punto como se recoge, sino que lo hizo más avanzada la reunión.

D. José Manuel Odriozola Azurmendi, Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco, aclara que en su intervención en el último pleno en el que solicitaba la creación de un Consejo Vasco de Mayores no excluía la posibilidad de que se creara en el seno del Consejo Vasco de Bienestar Social una comisión sectorial de Mayores.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales tras estas aclaraciones solicita la aprobación del acta.

*3.puntua.- Etxean tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituen Dekretuaren* zirriborroaren aurkezpena eta aginduzko txostena.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak zorionak eman dizkie bertaratu diren guztiei Dekretua lantzeko prozesuan egindako lanarengatik.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendari Carmen Vicioso Etxebarria andreak Dekretuaren alderdi esanguratsuenak aurkeztu ditu. Vicioso andreak adierazi duenez, Emakunderen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekarpen idatziak jaso dituzte, baina oraindik ez dute ekarpen horiek Dekretuari eransteko behar adinako denborarik eduki. Nolanahi ere, hori egiteko eta jarraian 5. Zirriborroa

*Punto 3.-* Presentación e informe preceptivo del borrador del *Decreto por el que se regulan los recursos de acogida a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico.*

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, felicita a todos y todas las presentes por el trabajo realizado en el proceso de elaboración del Decreto.

Dña. Carmen Vicioso Etxebarria, directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, presenta los elementos más significativos del Decreto. Señala que se han recibido aportaciones por escrito de Emakunde y de la Diputación Foral de Bizkaia y que no ha habido tiempo suficiente para incorporarlas al Decreto, pero que existe intención y compromiso de hacerlo y

igortzeko konpromisoa hartu dute.

posteriormente enviar el que sería 5º Borrador.

Jarraian, zenbait ordezkarik egindako adierazpenak biltzen dira:

Se recogen a continuación algunas consideraciones aportadas por diferentes representantes:

Clara Campoamor Elkarteko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak adierazi duenez, izenburuan eta Dekretuaren testuan “genero-indarkeriaren biktimak” idatzi beharko zatekeen, “etxean tratu txarren biktima” idatzi beharrean. Halaber, Dekretuaren testuari beste zenbait ekarpen egin dizkio.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, de la Asociación Clara Campoamor, señala que respecto al título y en el texto del Decreto debiera haberse recogido “víctimas de violencia de género” en vez de “víctimas de maltrato en el ámbito doméstico”. Realiza también otras aportaciones al texto del Decreto.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak, partaidetza eskertu ondoren, honako eskaera hau egin du: ekarpenak luzeak badira, hobe da aldez aurretik idatzita igortzea, ekarpen horien ulermena eta bilketa errazteko.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, agradece la participación, pero recomienda y solicita que cuando las aportaciones sean extensas se envíen con antelación por escrito para facilitar la comprensión y recogida de las aportaciones.

Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak esandakoaren haritik, ELA Sindikatuko Itziar Gabikagogeaskoa, andreak adierazi du izenburuan “genero-indarkeria” idatzi beharko litzatekeela.

Dña. Itziar Gabikagogeaskoa, del Sindicato ELA, apunta, en línea con la aportación de Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, que debiera recogerse en el título “violencia de género”.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Haur, Emakume eta Pertsona Ezinduen zuzendari nagusi Iñigo Pombo Ortíz de Antiñano jaunak Dekretua ez onartzeko eskaera egin du, behin betiko testua ez delako. Pombo jaunaren iritziz, horrela jardun beharrean, bestelako forma alternatiboak bilatu beharko lirateke, arauaren tramitazioa geldiarazi gabe. Esaterako, Batzorde Iraunkor Delegatuak bere gain har lezake Dekretua onartzea.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano, Director General de Infancia, Mujer y Personas con Discapacidad del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, solicita que no se apruebe el decreto puesto que no se trata del texto definitivo. Opina que no es necesario proceder de esta manera y se podían buscar formulas alternativas que no supusieran la paralización de la tramitación de la norma como por ejemplo la aprobación desde la Comisión Permanente Delegada.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko zuzendari nagusi Juan Francisco Sandín Ramos jaunak testua onartzeko proposamena egin du, baina hurrengo zirriborroaren aurkezpenaren baldintzapean jarriz.

D. Juan Francisco Sandín Ramos, Director General de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava, propone que se haga una aprobación del texto,, pero condicionada a la presentación del siguiente borrador.

Fernando Consuegra Revuelta Gizarte Gaietako sailburuordeak dioenez, hauxe da aurreikusitako prozedudra: osoko bilkurak onestea eta aurkeztutako ekarpenak sartzea.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, señala que esta es la forma prevista: aprobación por el pleno e incorporación de las aportaciones presentadas.

Dekretuaren izenburuari buruzko ekarpenei dagokienez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendari Carmen Vicioso Etxebarria andreak adierazi du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean bildutako terminologia erabili dela.

Dña. Carmen Vicioso Etxebarria, Directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, aclara con respecto a las aportaciones sobre el título del decreto que se ha utilizado la terminología acogida en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*4. puntua. Haurren eta Nerabeen Behatokia arautzen duen Dekretuaren* zirriborroaren aurkezpena eta aginduzko txostena.

*Punto 4.* Presentación e informe preceptivo del borrador del *Decreto regulador del Observatorio de la Infancia y la Adolescencia*

Fernando Consuegra Revuelta Gizarte Gaietako sailburuordeak Dekretuaren alderdirik esanguratsuenak aurkezten ditu, Haurren Legean aipatutako Gobernuaren organo batek administratiboki garatuko duen arau bat dela azpimarratuz, hor

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, presenta los aspectos más significativos del Decreto, destacando que se trata de una norma que desarrolla administrativamente un órgano propio del Gobierno contemplado en la Ley de

zehazten baitira haren funtzio eta ezaugarri nagusiak, aurkezten den dekretuan ere jasota daudenak. Gogora ekarri du, bestalde, Kontseiluko kideek 15 egun izan dituztela ekarpenak egiteko eta ez dutela batere egin.

Jarraian, zenbait ordezkarik egindako adierazpenak biltzen dira:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuaren Ezinduen eta Babesgabeen Laguntzako zuzendari nagusi José Luis Madrazo Juanes jaunak haurren legea garatzeko egindako lana eskertu du, baina Dekretu hori aldez aurretik administrazioekin adostu beharko zatekeela gaineratu du.

Gualber Atxurra Pérez jaunak, Eudelen ordezkaritzan, behatokiaren esku utzitako eginkizunak bere horretan uzteko eskaera egin du, haurren legean adierazitakoaren arabera. Adierazpen hori idatzita aurkeztu da.

Emakumearen eta Adingabekoaren Zentroko kide Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak Dekretuarekin bat datorrela adierazi du, eta behatokiak haurrei lotutako entitateekin elkarlanean diharduela azpimarratzeko eskaera egin du; halaber, euskal herri-administrazioak behatokiarekin elkarlanean jardun beharra nabarmendu du.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko zuzendari nagusi Juan Francisco Sandín Ramos jaunak honako hau eman du aditzera: ekarpenak egiteko denbora urria izan da, eta zenbait alderdi berraztertu behar dira; hortaz, litekeena da testua izapidetzetik kanpo geratzea.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak Dekretuan Eudelen ekarpenak biltzeko konpromisoa hartu du. Gainera, Juan Francisco Sandín Ramos jaunari erantzunez, honako hau adierazi du: Dekretuaren aurkezpena bere horretan uzten da, Kontseiluaren onarpenaren eraginpean, Dekretu hori behatokia arautzen zuen haurren legearekin bat datorrelako, eta Dekretu hori lehenbailehen egitea komeni delako.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Haur, Emakume eta Pertsona Ezinduen zuzendari nagusi Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano jaunak adierazi du Dekretua aurkeztu den moduarekin ados ez dagoela, aldez aurreko baterako lanik egin ez delako eta horrek eztabaidatzeko eta aberasteko aukera oro galarazten duelako. Gainera, Pombo jaunak ez du begi onez ikusten hain azkar jardutea.

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko kide Arantza Madariaga andreak adierazi du ondo ikusten duela Kontseiluaren osoko bilkurak aurkeztutako

Infancia, lugar en el que se determinan sus funciones y principales características, también recogidas en el decreto que se presenta. Recuerda, por otro lado, que las y los vocales del Consejo han tenido 15 días para hacer aportaciones y que no se ha recibido ninguna.

Se recogen a continuación algunas consideraciones aportadas por diferentes representantes:

D. José Luis Madrazo Juanes, Director General de Atención a la Dependencia y la Desprotección del Departamento de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa, agradece el trabajo de desarrollo de la ley de infancia, pero lamenta que no se haya consensuado este decreto anteriormente con las administraciones.

D. Gualber Atxurra Pérez, en representación de Eudel, solicita que las funciones asignadas al Observatorio se mantengan tal cual las recoge la ley de infancia. Esta consideración es aportada por escrito.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, de la Asociación Centro de Información de la Mujer, del Niño y la Niña, muestra su acuerdo con el decreto y solicita que se remarque la colaboración del Observatorio con las entidades vinculadas a la infancia, así como la obligación de colaborar de las administraciones públicas vascas con el Observatorio.

D. Juan Francisco Sandín Ramos, Director General de Bienestar Social de la Diputación Foral de Álava, opina que dado que se ha contado con poco tiempo para realizar aportaciones y que hay aspectos revisables pudiera no someterse a trámite el texto .

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, se compromete a recoger en el decreto las aportaciones de Eudel y en respuesta a D. Juan Francisco Sandín Ramos señala que se mantiene la presentación del decreto para la aprobación por parte del Consejo porque está en consonancia con la ley de infancia que ya regulaba el Observatorio y porque es positiva su rápida constitución.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano, Director General de Infancia, Mujer y Personas con Discapacidad del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, muestra su disconformidad con la forma en como se ha presentado el decreto sin un trabajo conjunto previo, porque se pierde posibilidad de debate y enriquecimiento y cree que no es necesario trabajar con tanta celeridad.

Dña. Arantza Madariaga de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer interviene para decir que entiende la necesidad de aprobar por parte del pleno del Consejo

Dekretuak onartu beharra, hartara aurrera egin ahal izateko; aitzitik, aldez aurretik aintzat hartu beharreko eta bazter utzi beharreko ekarpenak zehaztu beharko liratekeela uste du. Madariaga andrearen ustetan, administrazioaren hiru esparruetatik gutxienez bi elkartu beharko lirateke, testuen edukiak adostasunez ixteko.

los decretos presentados para poder avanzar, pero que quizá no sea la mejor forma hacerlo sin concretar las aportaciones que van a incluirse y las que no. Cree que al menos los tres ámbitos de la administración debieran juntarse y cerrar los textos consensuadamente.

Arantza Madariaga andreak esandakoaren haritik, Emakumearen eta Adingabekoaren Informazio Zentroko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak adierazi du gizarte-alderdiak ere azken adostasunean parte har dezakeela.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, de la Asociación Centro de Información de la Mujer, del Niño y la Niña, añade a la aportación de Dña. Arantza Madariaga que también las parte social puede tomar parte en el consenso final.

Fernando Consuegra Revueltak gogora ekarri du Sail bateko organo batek garatu beharreko dekretu honetan ezarritako entzunaldi-izapideak iraun duen bitartean ez dela batere idatzitako ekarpenik jaso. Nolanahi ere, eskertzekoak dira EUDELek idatziz egindako ekarpenak, eta ikusita Haurren Legeak aipatzen dituela, onartu eta testuan sartzen dira.

D. Fernando Consuegra Revuelta recuerda que en el trámite de audiencia establecido para este decreto de desarrollo de un órgano departamental no se han recibido aportaciones por escrito. En cualquier caso, se agradecen las aportaciones que realiza por escrito EUDEL y, visto que son el literal que recoge la Ley de Infancia, se asumen y se incorporan.

*5. puntua. Haur eta nerabeentzako Defentsa Bulegoaren antolaketa- eta funtzionamendu arautegia ezartzen duen Dekretuaren* zirriborroaren aurkezpena eta aginduzko txostena.

*Punto 5.* Presentación e informe preceptivo del borrador del *Decreto por el que se establece el Reglamento de organización y funcionamiento de la Defensoría para la infancia y la adolescencia*

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak Dekretuaren alderdi garrantzitsuenak aurkeztu ditu.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, presenta los aspectos más representativos del Decreto.

Jarraian, zenbait ordezkarik egindako adierazpenak biltzen dira:

Se recogen a continuación algunas consideraciones aportadas por diferentes representantes:

Euskadiko familia ugarien elkarteetako Federazioko kide Natalia Diez Caballero andreak ontzat jo du Defentsa Bulegoa sortzea, eta familia-alorrean horrelako organo bat eratzea egokia dela uste du.

Dña. Natalia Diez Caballero, de la Federación de asociaciones de familias numerosas de Euskadi, valora positivamente la creación de esta Defensoría y opina que pudiera ser interesante la configuración de este órgano en materia de familia.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Haur, Emakume eta Pertsona Ezinduen zuzendari nagusi Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano jaunak adierazi du komenigarria litzatekeela Dekretua eta datuak babesteari buruzko legea nola uztartzen diren aztertzea, aholkularitza juridikotik abiatuta.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano, Director General de Infancia, Mujer y Personas con Discapacidad del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, apunta que sería conveniente revisar desde asesoría juridica cómo casa el decreto con la ley de protección de datos.

Gizarteratze zuzendari Mikel Santiago jaunak, familia-arloko eskumeneko sailaren ordezkaria den aldetik, Natalia Díez Caballero andreak esandakoari heldu dio, eta hausnarketa hori familia-planaren esparruan kokatu beharra dagoela adierazi du.

D. Mikel Santiago, Director de Inserción social y como persona representante del departamento competente en materia de familia recoge la aportación de Dña. Natalia Díez Caballero y señala que es en el marco del plan de familia donde se enmarca esta reflexión.

Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioko kide José Manuel Odriozola Azurmendi jaunak adierazi du, familiaren esparruarentzat ez ezik, adinekoentzako behatoki bat eta defentsa-bulego bat ere eraiki beharko liratekeela.

D. José Manuel Odriozola Azurmendi, Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco, opina que al igual que para el ámbito de familia, también sería importante la creación de un observatorio y una defensoría centrada en las personas mayores.

Egindako ekarpenak jasota onetsi egin da aurkeztutako testua, gero barne-izapideak egin dadin.

Recogidas las aportaciones realizadas se aprueba el texto presentado para su posterior tramitación interna.

*6. puntua.* Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuei buruzko hausnarketa estrategikoa egiteko irekitako partaidetzazko prozesua: lege berri baterako oinarriak.

*Punto 6.* Proceso participativo abierto para la reflexión estratégica sobre los servicios sociales en el País Vasco: bases para una nueva ley.

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak gizarte-zerbitzuei buruzko aurreproiektua landu aurretik ireki den partaidetzazko prozesua aurkeztu du.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales presenta el proceso participativo abierto preliminar a la elaboración del anteproyecto de ley de servicios sociales.

Urritasun psikikoa dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioko (FEVAS) kide Pedro Fernández García jaunak adierazi du Kontseiluaren eraketa berriak gizarte-politiken erdigunea izan beharko lukeela. Horretarako, baina, Kontseiluko entitate eta erakunde guztiek bat egin beharko dute ideia horrekin, eta, gainera, Kontseiluaren bilkuretan aztertu beharreko gaiak aldez aurretik landu eta adostu beharko dira. Amaitzeko esan du gizarte-zerbitzuei buruzko legea lantzeko prozesua oso garrantzizkoa dela, baina horrek ez dituela beste zenbait alderdi bazter utzi behar.

D. Pedro Fernández García de la Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con minusvalía psíquica (FEVAS), apuesta porque ésta nueva configuración del Consejo sea central en relación a las políticas sociales y condiciona esto a que todas las entidades e instituciones del Consejo se lo crean y a que se traigan a las sesiones del Consejo las cuestiones trabajadas y previamente consensuadas. Apunta que el proceso de elaboración de la ley de servicios sociales es muy importante, pero que no se deben olvidar otras cuestiones.

*7. puntua.*- Informazioa:

- *Gizarte-ekimenarentzako laguntzen egoera.*

*Punto 7.* Información:

- *Situación de las ayudas a la iniciativa social.*

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendari Carmen Vicioso Etxebarria andreak Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak orain artean emandako laguntzen emaitzen berri eman du. Horren haritik argitu nahi izan du dagoeneko proiektu esperimentaletarako laguntzak erabaki direla; aurrekontu-zuzkidura nabarmen igo delako atzeratuta zeuden.

Dña. Carmen Vicioso Etxebarria, directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, expone los resultados de las ayudas de la Dirección de Bienestar Social resueltas hasta el momento y aclara que se han resuelto ya las ayudas para proyectos experimentales, retrasadas por el importante aumento de la dotación presupuestaria.

Gualber Atxurra Pérez jaunak, Eudelen ordezkaritzan, honako eskaera hau egin du: udalak entitate onuradunen zerrendatik bazter uztea, udalek sekulan ere ez dutela horrelako laguntzarik jasotzen aintzat hartuta.

D. Gualber Atxurra Pérez, en representación de Eudel, solicita que dado que los ayuntamientos nunca se ven beneficiados de las ayudas expuestas se les excluya como entidades destinatarias.

Gualber Atxurra Pérez jaunari erantzunez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendari Carmen Vicioso Etxebarria andreak argitu du zergatik udalek ez dituzten laguntzak jasotzen: udalentzako berariazko deialdi berri bat argitaratu da, udaleko gizarte-zerbitzuak etengabe hobetzeko. Hortaz, 2006. urteari begira, uko egindako proiektuak dituzten udalei dei egingo zaie ildo berri horretatik eskaera egiteko aukera izan dezaten. 2007. urtean, berriz, udalek ezin izango dute aldez aurretik adierazitako laguntzak jasotzeko moduko proiekturik aurkeztu.

Dña. Carmen Vicioso Etxebarria, Directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, en respuesta a D. Gualber Atxurra Pérez, aclara que la razón por la que los ayuntamientos no se han beneficiado de las ayudas es que se ha publicado una nueva convocatoria dirigida exclusivamente a ayuntamientos para la mejora continua de los servicios sociales municipales. Por tanto para este año 2006 se llamará a los ayuntamientos con proyectos denegados para que puedan solicitarlos en esta nueva línea y se excluirá en el 2007 la posibilidad de presentar proyectos por parte de los ayuntamientos a las ayudas previamente expuestas.

Emakumearen eta Adingabekoaren Zentroko Blanca Estrella Ruiz Ungo andreak honako proposamen hau egin du: laguntzaren ehuneko baten emakida urte-hasierara aurreratzeko aukera aztertzea, lehenagotik garatzen ari diren proiektuetarako.

Dña. Blanca Estrella Ruiz Ungo, de la Asociación Centro de Información de la Mujer, del Niño y la Niña, propone que se estudie la posibilidad de adelantar a principio de año la concesión de un porcentaje de la ayuda en el caso de los proyectos que vienen desarrollandose hace un tiempo.

Boluntariotzaren Euskal Kontseiluko kide Juan José Seoane jaunak adierazi du emakida-aukera hori kirol-arloan erabiltzen dela, baina entitateei nahitaez eman beharreko diru-laguntza ildoetan.

D. Juan José Seoane del Consejo Vasco de Voluntariado comenta que está opción de concesión se utiliza en materia de deporte, pero en líneas de subvención en las que hay carácter obligatorio de concesión a las entidades.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Saileko Haur, Emakume eta Pertsona Ezinduen zuzendari nagusi Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano jaunak adierazi du laguntza-ildoen lehiakortasun-erregimenak proposatutako eredua bideraezina dela. Bestetik, irabazi-asmorik gabeko entitateen funtzionamendu-laguntzen lurraldez gaindikotasunari buruz galdetu du.

D. Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano, Director General de Infancia, Mujer y Personas con Discapacidad del Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia, aclara la imposibilidad del modelo propuesto por el régimen de concurrencia competitiva de las líneas de ayudas. Por otro lado pregunta sobre el carácter supraterritorial de las ayudas de funcionamiento de entidades sin ánimo de lucro.

Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano jaunari erantzunez, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendari Carmen Vicioso Etxebarria andreak adierazi du lurraldez gaindikotasunaren irizpidea ez dela baztertzeko baliatzen, lehentasuna emateko baizik.

Dña. Carmen Vicioso Etxebarria, directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, en respuesta a D. Iñigo Pombo Ortiz de Antiñano, aclara que el carácter supraterritorial no es un elemento de exclusión sino de priorización.

- *Haur eta Nerabeen arretarako Batzorde Iraunkor Sektoriala eta Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala arautzen dituen Dekretua lantzeko lehen urratsak.*

- *Inicio de elaboración del Decreto regulador de la Comisión Permanente Sectorial para la atención a la Infancia y Adolescencia y de la Comisión Permanente Sectorial de Personas Mayores*

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak haurren Batzorde sektoriala abian jartzea proposatu du, eratzeko Dekretu baten bitartez, haurren legeak ezarritakoaren arabera. Hori ez ezik, adinekoen batzorde sektoriala eratzea ere proposatu du, Kontseiluaren osoko bilkuraren akordioaren bitartez.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, propone la puesta en marcha de una Comisión sectorial de infancia mediante un decreto de constitución, tal y como prevé la ley de infancia, y la constitución de una comisión sectorial de mayores mediante acuerdo del pleno del Consejo.

Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioko kide José Manuel Odriozola Azurmendi jaunak uste du komenigarria litzatekeela adinekoen batzorde hori eratzea, baina betiere kontuan hartuta Adinekoen Euskal Kontseilua osatzeko aukera. Kontseilu hori aholku-emailea izango litzateke, eta adinekoentzako politikei buruzko informazioa emango luke une oro. Odriozola jaunak nabarmendu du adinekoen entitateak kezkatuta daudela zahartze aktiboari eta alor soziosanitarioari dagokienez.

D. José Manuel Odriozola Azurmendi, Federación Territorial de Asociaciones Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco, opina que es conveniente la conformación de esta comisión de mayores, pero teniendo en cuenta la posibilidad de creación de un Consejo Vasco de Mayores como órgano consultivo y que informe preceptivamente de las políticas drigidas a mayores. Señala la preocupación de las entidades de mayores con respecto al envejecimiento activo y el espacio sociosanitario.

- *Dolores Ibarruri Sariak*

- *Premios Dolores Ibarruri*

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko zuzendari Carmen Vicioso Etxebarria

Dña. Carmen Vicioso Etxebarria, Directora de Bienestar Social del Departamento de Vivienda y

andreak sari-banaketaren alderdi esanguratsuenak aurkeztu ditu.

Asuntos Sociales, presenta los elementos más importantes de la entrega de los premios.

- *EAEko gizarte-zerbitzuen VI. egoera-Txostena egiteko proposamena.*

- *Propuesta para el VI. Informe de situación de los servicios sociales de la CAPV.*

Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak adierazi du txostena lantzeko eredu berriak aukera emango duela urte bakoitzeko datuak hurrengo urteko seihilekoan edukitzeko.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, informa del nuevo modelo de elaboración del informe que posibilitará disponer de los datos de cada año en el semestre del siguiente año.

8. puntua.- Galde-eskeak.

*Punto 8*. Ruegos y preguntas.

Urritasun psikikoa dutenen aldeko Elkarteetako Euskal Federazioko (FEVAS) Pedro Fernández García jaunak Kontseiluko lehendakaritzari eskatu dio Kontseiluari betiere informazioa eman diezaion mendekotasun-egoeran bizi diren pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen inguruan.

D. Pedro Fernández García de la Federación Vasca de Asociaciones a favor de personas con minusvalía psíquica (FEVAS), solicita a la presidencia del Consejo que se mantenga informado al Consejo de la situación de la Ley de promoción de la autonomía personal y atención a la dependencia.

Aldarte Elkarteko Ana Ureta Basañez andreak adierazi du familia hizpide hartzen denean —familia-planean, esaterako— familia homoparentalak ere hartu beharko liratekeela kontuan, beste familia-eredu bat osatzen duten aldetik. Ureta andreak gaineratu du une honetan bi elkarte lanean ari direla familia horiek ordezkatzeko zereginetan.

Dña. Ana Ureta Basañez, Asociación Aldarte, manifiesta que cuando se habla de la familia, como en el plan de familia, echa en falta la inclusión de las familias homoparentales como un módelo más, teniendo en cuenta además que existen dos asociaciones que les representan.

Pedro Fernández García jaunaren eskaerari erantzunez, Gizarte Gaietako sailburuorde Fernando Consuegra Revuelta jaunak adierazi du mendekotasun-egoeran bizi diren pertsonen autonomia sustatzeari eta haiei laguntza emateari buruzko Legearen garapen-esparruan hitzarmen bat negoziatzen ari dela. Horren arabera, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak 9 milioi inguru emango lituzke 2006an EAEn egindako proiektuak finantzatzeko. Finantziazio hori Foru Aldundien bitartez —eta, azken buruan, udalen bitartez— bideratuko litzateke.

D. Fernando Consuegra Revuelta, Viceconsejero de Asuntos Sociales, en relación a la petición de D. Pedro Fernández García, informa de que en el marco de desarrollo de la Ley de Promoción de Autonomía y Atención a la Dependencia se está negociando un convenio por el que el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales financiaría con cerca de 9 millones proyectos realizados en la CAPV en 2006, importe que se canalizará a través de las Diputaciones Forales y ésas a su vez a los Ayuntamientos.

Bestelako izapiderik gabe, bilkura 14:00etan amaitu da.

Sin más trámite, da por finalizada la sesión a las 14:00 horas.

SECRETARIO
IDAZKARIA

VºBº EL PRESIDENTE
PRESIDENTEAREN ONIRITZIA